Euskal Idazleen elkartea (II)

Euskarak gaur egun duen prolemarik larrienetako bat sorketazko literaturgintza da eta ahalik eta soluziorik egokiena eman nahi genioke arazo honi.

Euskal Idazleen Elkartea sortzea pentsatu zenetik, erdi isilka edo azpilanezko bide meharretatik irten ezina ezagutu zuen. Baionan 1969ko irailaren 6an sortutzat hasi bazen ere, frankismoaren menpeko garaian ezin zuen leku egokirik aurkitu eta ekintzak aski makalak izan ziren politika gertakizunak bizkortzen ziren heinean. Hasiera hartan J.M. Torrealday izendatu zen idazkari eta X. Kintana eta R. Camblong laguntzaile. Geroxeago, 1972ko uztailaren lehenean, Mailabian egin genuen beste billera bat, ***Anaitasuna*** *aldizkariaren zuzendaritzaren deira, baina gauzak zeharo bihurtu ziren. Lehenago kanpotikako eragozpenak baziren, orduan barrutik zetozten, alkizkari horren eta Lur editorialaren inguruan biltzen zirenek, idazle ezkertiar konpromisodun elkartetzat jo nahi zutelako. A. Zelaieta adiskideak, garai hartan* ***Anaitasuna****ren zuzendari zenak, baina batzar hartara agertu etzenak, ez ditu behar bezala jasotzen bertako gertakizunak* ***Gabriel Aresti – II*** *(1976) deritzan liburuaren 237-238 orrialdeetan. Hango eztabaideetan, alde batetik Aresti zena eta bestaldetik ni, elkarren artean aurrez aurre nabarmendu baginen, batak elkarteari ezkertiar konpromisodun bidea eman nahi ziolako, eta besteak politika arazoetatik aparte joatearena defenditu zuelako izan zen. Hirurogetak ginen han bilduak eta lekukorik asko bada hori hala zela aitortzeko. Bestalde, han konpromiso horren alde aurrenengo jardun zirenetarik zenbaitek ez dute jarraitzen idazle, bere egitekoa hori ez zenez, noski. Baita ere, baziren euskararik etzekienak ere, jokera hura bultzatu nahirik. Hargatik idatzi nuen "Euskal Idazleen Elkartea kinka larrian" zeritzan txosten hura.*

Gertatuak gertatu, horiek ere hor gelditzen dira historiarako. Hurrengo ahaleginak 1978tik hasten dira, J.A. Arana Martija eta X. Gereño-ren ardurapean, handik urte betera nortasun juridikoaren eskaria egiteko. Jakina, urak bere lekura eraman ondorean, bakoitzaren jokerak errespetatuz idazlea izatea nahikotzat hartuz.

Urte honen hasieran, asmo zaharra indarberritu genuen, Gipuzkoako Diputazioan aurtengo otsailaren 25ean idazleak bilduaz. Batzordea berrituz ekin genion lanari, informazioa bilduz eta arautegia berrituz. Idazkaria izendatu zen J.M. Velez de Mendizabalek eramandu zamarik handiena. Eta, Elkartearen aurkezpena publikoki agertu genuen iragan uztailaren 30ean Bizkaiko Diputazioko Bibliotekan. Irailetik jarraituko dugu bazkideak lortzearen kanpaina.

Elkartearen egitekoa, ezaguna da: bide berriak urratzea, idazle berrieri leku ematea, bizitzaren legeak ez ezik kulturgintzak berak hala eskatzen digulako. Liburu bat publikatua edo berrogetahamar artikulu edo saio laburren egilea izanezkero edozein idazlek du bere tokia, ezker naiz eskubi, euskara batukoek naiz bestelakoek. Hoi!: Euskal Idazleen Elkartea, soil soilik, elkarte kolegial horietakoa izanen da; bere eginkizuna, egileen interesak defenditzeko denez gero.

Egileak nola promozionatu eta honen alde laguntzak nola lortu. Hein batean, hori izango da bere egitekoa. Hortarako, birberritze bat izan da, Andu Lertxundi buru izendatuaz, J.M. Velez de Mendizabalek idazkari jarraituz eta beste zenbait aholkulari.

Oraingoz, etxea, probisionalki, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan izango da, Bilboko Ribera kalearen 6.ean.

Liburuari dagokionez, egile eskubideak gordetzeko, kontratuak nola egin eta eskubideok zertan diren legearen aurrean, idazleak informatu. Baina, bestalde, argitaletxeeri ez ezik, gobernariei ere informazioak eskaini, liburugintzaren politika-ekonomia hortan egileari zer tratamendu eman behar zaion adieraziz. Baita ere, aldizkari edo naiz egunkarietan profezional mailan ohi den bezala ordainketak egiteaz. Eskubide horiek inori parkatzekotan, kultur aldizkarieri soilik parkatuko zaie, komertzialak ez direnean.

Hizkuntza itipiaren egoerak, bere salmentazko merkatalgoa hain urria izateak, bere murriztasunagatik, berak behartzen du idazlea elkartasunera, egileen alderako ekintzak bateratuz eskubideak legez gordetzeko eta hedakundeaz egitekko.

Asociacion Colegial de Escritores delakoaren lehen batzar nagusian, 1979ko otsailean egin zituenetan, bide ziurra markatu zuen gainerako hizkuntzentzat ere, Kongreso hartako liburuko erabakietan ikus ditzakegunez; katalanek ega gailegoekberen elkarteak behar bezala antolaturik zituzten ordurako. Gu gara azkenaz. Eta, behar bada, premiarik handiena dutenak ere bai. Asociacion Colegial de Escritores delakotik berezirik edo zer ikusirik gabe, jakina, baina nolabaiteko harremanak gordeaz.

Adibidez, gezurra badirudi ere, euskarazko liburu argitaratzailerik gehienek egilearen lana ez dute ordaintzen, euskarazko liburuekin irabazbiderik ez dutelako; baina papera, inprimategi lana eta abar, ordaintzen dute, baita liburudenderi bere komisioa gorde ere, eta egile eskubidea, legez, salmentatik %10 bada, zergatik ez ordaindu? Errekari iturriak moztea bezalakoa da hori. Luzarora, idazleak urritu eta literatura ahuldu. Azken baten, berrehun balio duela berrehun eta hogeian ez jartzearren. Guti gora-behera, hori da gure literaturgintzaren egoera.

Horregatik, kaso bakoitzean, idazlea bera informatu beharra eta premia duenean lagundu. Euskarazko liburu baten eskubideak lortzeko, inoiz argitaratzaileren baten kontra abogadu bat hartu behar bada, eskubideak heurak baino gareztiagoa da eta egile batek holakorik egin ezin, galera bere lepora datorrelako; baina, elkarteak egin lezake bere bazkideetarik edonorrena defenditzea, txarrenera joia ere.

Baina, bada besterik ere. Egileen Mutualitate bat ere bada, ordainketa tipi baten ondorean zer jaso handirik eduki lezakeena. Mutualitate horrek ordea, bertako izateko, hiru liburu idatziak eta horietarik baten egile eskubideak jasoa izateaz gainera; idazle elkarteren batean bazkide izatea eskatzen du. Gaztelerazko idazleek, naiz katalanek eta gailegoek aspaldi bideratuak dira mutualitate horiara ere; baina, gehinetan bezala, euskaldunok gaude arloie.

Ikuspegi askotatik nabari da idazleen elkartea bultzatu beharra, literaturgintzak aurrera egingo badu. Adibidez, orainitsu, Gipuzkoako Diputazioaren Hizkuntza Sailak, horomdaterik honerenakin, egileaen laguntzako plangintza iragarri du; baina holako plangintzá egoki bat izatetik oraindik oso urruti dago, behinekpehin beste toki batzutan egiten dutena ikusirik. Asmoa ona da, baina asmo soila ezta aski, eta plangintza horien hobetzea eta bideratzea dagokio Euskal Idazleen Elkarteari.

Duela pare bat urtik maizegi hitz egin da euskal literaturaren krisialdiaz. Egia da, idazle askorentzat frankismoaren aurkako arma zela euskaraz idaztea, beste askok horri laguntzeko euskarazko liburuak erosten zituen bezala; baina, arrazoi xinpleegia deritzat nik horri. Potere publikoek, beste mila eginkizunetan arduraturik, puntu hau (zalantzarik gabe, euskaldunontzat beharrezkoena) baztterturik utzi dute edo ez dute jakin nola bideratu. Eta, Euskal Idazleen Elkartearen eginkizunagai bat izango da plangintzok gertatuaz ugaritzea. Gobernariek behar bezala bideratu ditzaten. Gainerako krisiak, gure behar bezala, plangintzak eta azpiegiturak horta behar dira ere. Ez holako krisirik gerta ez dadin.

Gauzak arrazoiz begiratzen badiogu, ironiaz ere esan daiteke da gure herri hau besteegandik hizkuntzagatik bereizten dela. Ez euskal literatura indartu gabe ez daiteke euskaraz ipui, irratsaio, eleberri,... gabe ez daiteke aurrera egin. Ez egunkariak gaztelerazkoak izaten jarraituko dira ez eta telebista, euskaraz egiten badira ere, itzulpen soilak izanik harko dira eta, azken batean, gaztelerazko ez dena horra ere esku erortzen bait da. Sorketazko literaturgintza bultzatzen ez duen herria, ez esku erortzen bait da.

Herri txoro hontan normala iduritzen zaigu urbana ez den bat burutzeko herbestetik soldataz musikarik ekartzea. Ez gabe, gure herri sena hizkuntzan dagoela eta ez musikan. Ez bait, inork ez du konturik atera, tei edo zazti idazle bat ere gratu, alogeraz laneanjarriko bagenitu zer nolako lanbide ratuko ditzakegun gure herrian, euskaraz hobeto ez bada honekin batean herri nortasunerako. Ikusiko dugu etapa hau lehenago galdu behar gaituala burura ezak.

Euskal idazleok ere, gogoan hau euskli, zakarra. Ez handia bentzi ledi, asmoz eta jakitez.

Juan SAN MARTIN

En el presente artículo, continuación de la serie que se hacen algunas puntualizaciones sobre los intentos de mación de la sociedad de escritores en vascuence. Desde 1969. Aparte de las dificultades propias del régimen de aquellos años, hubo de los que pretendían dar una tación para el desarrollo de una literatura de consumo cial de tendencia izquierdista, pero, por fortuna, no mos muchos de los que nos considerábamos de izquierda. Hoy no se exige otra cosa que ser escritor en euskara, y finalidad de la entidad la protección al autor.

Naturalmente, la entidad preparará diversos planes para la protección del autor y el desarrollo literario, pero en gundo de los casos, para ser planteados a las organizaciones competentes y no para ponerlos en práctica por sí mismo. euskara, precisamente por ser una lengua de ámbito reducido, está más necesitado de una sociedad de escritores que otras lenguas de mayor ámbito. Precisamente en el Congreso de escritores de España, celebrado en Almería los días 16 a 19 de febrero de 1979, se tomó la resolución de crear cada lengua sus asociaciones de escritores, reservando una de ellas tenía su propio marco cultural y habría que organizarse a partir de esa realidad (ved la página 348 del **Congreso de Escritores de España**, S.A. – 1979). de Escritores. Ediciones Zero, S.A. – 1979).

Además, hay otro asunto que interesa al escritor en cuence, como viene a ser la Mutualidad de Autores que una cuota módica cubre con bastantes ventajas sobre mutualidades y que para pertenecer a la misma tener autor de tres obras como mínimo, haber cobrado los de autor por alguna de ellas y pertenecer a una sociedad de escritores.

Esta perspectiva general justifica la existencia de la sociedad de escritores en vascuence a la manera que lo hacen castellano, catalán y gallego.

Liburu ez-ezagun batetik Euskalherria 1808/N

Mayor Steinmetzek iratzi manuskriptuaren zathi handi bat Henri A. Ettek "Spaans Aventura" izenaz argitaratu du. Liburu hunek 170 plama daduka, eta hauietan 72 gr. eta 101 gr. plaumen arteko textuan Euskalherriari buruz mintzo da, eta bere aburu interesgarri batzu dakharta. Liburu hau Euskalherrian osotoro ez da ezagutzen. Neuk John Bilbori erakhutsi neraukonean euskal Bibligraphiaren autor hunek ere ezagutzen ez zuen.

Niri liburu hunen exemplare bat Baron F.S. Sixma van Heemstrak eman zerautan. Baron hau persona interesgarria da, zeren frisoin aberzale izanaz gainera **Gotha** *izeneko nobleziaren "who is who" delakoaren bidez erakhuts ditekenez, Nafarroako Erregeen leinu nazionalaren ethorkikoa bait da, konkreturki Santxo Handia bere arbasoa bat izanik bait da.*

Liburu huntan kontatzen da, nola eri izan zen maior hau bere equipaiaren bilha zloan. Equipaie hau aurrez Espainian zegozen trupa napolionikoetara igorri zuen. Maior Steinmetzek bere liburu huntan bere egunkaria iratzi zuen. 1808/ko Hazarouren 23/n Baionara heldu zen. Hiri huntan neguilaren 3/an arte egon zen. Irun-Irantzutik eta Oiartzunetik pasatu zen. Oiartzunen orduan Steinmetzek erraiten duenez 120 etxe 500 egoilliarrez ziren.

Gaur artikulu huntan soilik aiphatuko ditugu maior Steinmetzek Euskalherriaz emaiten dituen aburu batzu. Hunela Zubillarran Euskalherriaren mugetan zegoenean bere egunkarian bere burutapenak irazten ditu:

"Zo kan ik evan wel hier het schone en in vele opzichten agtenswaardige Biscaye niet verlaten, zonder nog een en ander darover te zeggen". ***Hunela ez nezake utz herrialde eder hau, punktu askotan prezagarria den Euskalherria her huni buruz gauza batzu erran gabe.*** *Eta hitz hauietaz aintzina dioa: De wegen in Biscayen, te weten de gemaakte wegen of Caminos Reales (koninglyke wegen) vooral welke van Bayonne over Vittoria na Burgos en die van Bilbao over Orduna na Burgos gaan, kan men in de daad als de schoonsten en besten in Euroa aanzien.* ***Euskalherriko bideak, hau da gizonek eginikakoak edo errepideak, eta hauietan barez ere Baionatik, Gasteh izen barna Burgalara diona, eta Bilbotik Urduñan barna Burgalara diona, Europan dagozen bideetanederrenak eta onenak direla erran diteke.*** *Eta hunela direlako harridura jakin-araztekotz hunela jairrikitzen da: Dit is zo veel meer te bewonderen en te pryzen, daar geen land misschien zo veel Zwarigheid om goede wegen te maken opleverd als dit.* ***Eta hau anhitz gorestekotz eta harritzekotz da, zeren-eta, uste dudanez ezein ere herrik hemen bezainbertzeko diffikultateak erakhusten ez bait ditu.*** *Eta geroz kontatzen derauku nola hiur provintzia hauk, beuren interseeko lanak dituztenetan, hok burutarztzeko biltzen diren (De drie provintien van Biscayen, genaamd Viscaya, Guipuzcoa en Alava, hebben zich vercenigd deze wegen tot stand te brengen, gelyk zy steeds doen, waneer hunne gemeenschappelyk voordeel zulks mede brengt.)*

Geroz kontatzen du, nola provintzizia hauiek, batbederak, beren gubernua duten, eta nola Bizkaian eta Guipuzkoan Erregearen ordenak bethetzen ez diren, baldin eta berheien gubernuek beren baietza eman ez ba dezate. (Ieder dezer drie provintien heeft zyne byzondere regeering. In de beide provintien Viscaya en Guipuzcoa worden de bevelen des Konings niet eerder ter uitvoer gebragt, voor da de regeering dezelve goedgekeurt heeft)'

Steinmetzek era kontatzen du, nola provintzila hauietan herriaren ahalmenaren systema politiko bat zegoen, eta nola herrialde haukiek Erregerari zergak pagatzen ez zerauzkioten, salbu-eta don gartuit bat.

Steinmetzek orduan era ikasi zuen, ezen Bizkaian eta Gipuzkoan erregearen harmada ezin sar zitekela, ezein ere prettexuz. Hau erranik-eta, Steinmetzek euskaldunen lanzaletasun eta maratzasunaz hitz egiten du, erraiten duela: Daar dit land zo zeer bergachtig is, zo ziet men overal, dat de yzere vlyt der Biscayaners, die zeer contrsateert met de luiheid der Castilianen, aan de rotsen de grond betwist hebben om hem te bebouwen (Herrialde hau hoin menditsua izanaz, edonun euskaldunen lanzaletasuna ta maratzasuna ikhusten da, eta berhau gaztelarren alferkeriaz kontrastatzen da. Heiek arkaitzei kontra pentzeak lortu dituzte lantzekotz). Bizkaian orduan orain bezala askotan arthoa (maïs of Turksche weit, Steinmetzek erraiten duenez) phyteutzen zen.

Steinmetzek berehala ikhusi zuen nola euskaldunen hizkuntza, española ez zen, baizik-eta hizkuntza berarizkoa zela, ethorki zaharraz. Geroz kontatzen derauku nola euskaldunek bere herria landu ta kultivatu duten, kanpotarren laguntzarik gabe. Orduan ere, orain bezala Bilbok eta bertze euskal hiriek, Españaren Gubernuen etsaiagoa zelata, asko pairatzen zuten, zeren Amerikeatik ethorten ziren onziek beren kargamenduak. Euskalherrian ezin desenbarka zitzazketen, España-ko portu batetan sartu gabe, eta orduan portu huntan zerga handiak pagatu behar zituzten Euskalherrira joan zitezken baino lehen. Beraz orduan, orain bezala Madrileko Gubernamenduak Euskalherriarentzat bethi diffikultateak asmatzen zituen, euskaldunen progressiua aztopatzekotz.

(Sedert verscheide jaaren heeft deze stad veel van hare vorige industrie verlooren, want derzelver looyeryen, die, te vooren voortreffelijk zynde, veel opbrachten; zyn vermindert, terwyl de huiden uit Spaansch America kommende niet direct tot Bilbao mogen komen, maar eerst in eenen arderen Spaansche haven aanlandende zware regten of impost moeten betalen. (p1.88)

Bainan kultura Euskalherrian nola dagoen aiphatzen duen mementu bakharrean, soilik "Marquise van Montehermoso" aiphatzen derauku. Ez dakigu euskalduna zenz, bainan ezetz uste dugu. Haren senharra España-ko Grande bat zela erraiten derauku. Emazteki hau orduan 24 urthekoa zen, hirur semeen ama, hauietan zuhaurrena 7 urthekoa. Bainan oso emazteki kultivutu zen Steinmetzen aburuz, zeren on ongi frantsaraz, anglaraz ta italiaraz mintzatzen bait zekien, eta huntaz gainera musikazale handia zen eta ongi pianoz jotzen zekien. Emazteki hunek hoin ongi pianoz improvisatzen eta jotzen zekien non Steinmetzek techne huntan virtuosa bat zela erraiten zuen, batez ere huntaz gainera ahots eder eta on batetaz kantotzen bait zekien.

Zoritzarrez, liburu huntan hoin ongi ta maithasunaz euskaldunei buruz mintzo zen maior horrek, kulturari buruz mintzatzera ethorri zenean... euskaldunez ezin zezaken hitz egin. Nil novum sub sole. Manuskriptuaren kopi ta gaur-egunean Den Haagen zaintzen da.

Federico KRUTWIG SAGREDO

En el libro llamado "Spaans Avontuur" de Henri A. Ett, se reproduce en gran parte el manuscrito que en forma de diario redactó el Mayor Frans Friederich Christiaan Steinmetz durante su estancia en España, por como mayor de Infantería. Fue en el círculo de Napoleón. El Mayor Steinmetz había estado en Irún, en la frontera cerca de Bilbao, en noviembre de 1808. Su unidad que se encontraba en Bilbao, aunque el había bajado a Irún, tenía 170 páginas de que hablaba. Hay un trozo que comprende las páginas 101 está dedicado al País Vasco y a sus mismas su autor relata sus impresiones, sus sustos, y especialmente sus opiniones dignas de ser conocidas. Por ser una de las que expresadas por un extranjero, como el mayor Steinmetz, que se mueve imparcial. El libro está publicado en una biblioteca de Madrid en 1808 y fallecido el 13 de junio de 1809. Es un libro muy conocido en Euskalherria. Fue traducido al holandés con una reseña de Pío Baroja y publicado en Bilbao. Fue también traducido al portugués. El manuscrito se conserva en la Haya.

El libro es interesante, por ejemplo, dice que Vitoria tiene 3400 habitantes, 14.000 habitantes Medina de Pomar, 700 casas y 2300 habitantes Miranda de Ebro, 2 casas. De Bilbao que entonces tenía unos 14.000 habitantes, dice que está en decadencia, entre otras cosas porque los Gobernantes están en Madrid y siempre ponían más problemas para conceder a cualquier cosa relacionada con el comercio de las vascas. El Mayor Steinmetz no autorizaba a los vascos los Gobernantes estaban en Madrid y los procedentes de América tenían que pagar sembarcolas en Bilbao antes de llegar a su destino. Por ejemplo, dice que en el que tenían que pagar en Bilbao antes de llegar a Bilbao.